



Hizkuntza Plangintza Graduondoa

Sakontze egitasmoa

“Galdamesko gazteen aisialdian euskara sustatzeko hizkuntza plangintza”

Laburpena

Lan honen bidez, Galdamesko gazteen errealitate linguistikoa, erabilera, zaletasunak eta jarrerak aztertu dira. Horiek aztertu ondoren, bi urteko iraupena duen hizkuntza plangintza bat diseinatu da, euren aisialdian euskararen erabilera sustatzeko. Hortaz, hein handi batean, helburua bikoitza izan da.

Datu bilketa hori egiteko bi metodologia erabili dira, hurrenez hurren: batetik, inkesta errealitate linguistikoa, erabilera (familia eta lagunak), zaletasunak eta jarrerak aztertzeko; eta, bestetik, behaketa zuzena euren artean erabiltzen duten hizkuntza zein den jakiteko. Horietan lortutako emaitzek, argi eta garbi adierazten dute gaztelania dela gure gazteen harreman eta aisialdi hizkuntza. Edozelan ere, euskararekiko jarrera positiboa adierazi dute.

Beraz, diagnosi hori egin ostean, helburu nagusiaz aparte, helburu jakinak garatzeko premia antzeman dugu. Horiek betetzeko, gure gazteen errealitatearekin bat egiten duten jarduerak prestatu ditugu, hau da, plana diseinatzeari ekin diogu. Horren arduradunak Galdamesko herritar bat (planaren diseinatzailea), Kultura zinegotzia eta Udala bera izan dira.

Azkenik, plana indarrean ipintzen den bitartean bere arrakasta neurtzeko behaketa zuzena egingo dugu, eta amaieran inkesta eta eztabaida taldea. Metodo horiekin, euren errealitatea aldatu den ikusi nahi da eta hartutako neurriei buruz euren iritzia zein den entzun nahi dugu.

Aurkibidea

1.Sarrera.....	5
2.Marko teorikoa	8
3.Metodologia.....	12
a.Diagnosia egiteko metodologia.....	12
b.Plana aurrera eramateko metodologia.....	13
4.Diagnosia.....	13
a.Galdamesko egoera soziolinguistikoa.....	13
b.Inkestaren emaitzak.....	16
c.Behaketa zuzenaren emaitzak	26
d. Ondorioak.....	27
5.Hizkuntza plana.....	28
5.1. Helburu zehatzak eta ESEP(Euskara Sustatzeko Ekintza Plana)	28
5.2. Jarduerak helburuen arabera.....	30
5.3. Kronograma	38
5.4. Aurrekontua	50
5.5 Hizkuntza planaren ebaluazioa.....	52
6. Aipatutako lanak	53
7. Eranskinak.....	55

1. Sarrera

Galdames herria Enkarterrietan kokatzen da, Bizkaian. 821 biztanle ditu Galdamesek eta bere eremu menditsua mineralaren erauzketari eta tratamenduari lotuta egon da. Jarduera horrek herriaren orografia aldatu duela aipatu beharra dago.

Euskarari dagokionez, nabarmentzekoa da herria erabat erdalduna dela. Umeentzat egiten diren tailerrak eta udalekuak euskaraz bideratuta dauden arren, aipagarria da esatea, udalak ez duela inongo plan eraginkorrik garatu euskara sustatzeko. Euskararen presentzia eskas horri gehitu behar zaio udaleko webgunean euskarazko edukiak falta direla. Beraz, herritarrek udalaren aldetik euskaraz edo euskarari buruz jasotzen duten informazioa hutsaren hurrengoa da.

Hasieran aipatu bezala, Galdames Enkarterrietan kokatzen da. Enkarterriko mankomunitatea horren barne, hainbat herri biltzen dira: Galdames, Zalla, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Artzentales, Karrantza eta Sopuerta. Administrazio horrek 1998an Euskara Zerbitzua sortu zuen, euskararen presentzia gizarte mailan bermatzeko. Horren helburu nagusiak bi dira: alde batetik, euskaldun kopurua handitzea; eta, bestetik, euskaldunak euskaraz bizi ahal izateko zerbitzuak eskaintzea. Horretarako, udaletan eta Mankomunitatean eragitea beharrezkoa du. Horretarako, euskararen erabileraren egoera soziala kontuan hartuz, beharrezkoa da ekintza batzuk garatzea:

- Ikastetxeekin elkarlanean ikasleek eskola orduetan ez ezik eskolaz kanpokoetan ere euskara erabiltzeko aukerak sortzea. (Ikastaroak, euskal kantak eta jolasak, tailerrak, ipuin kontalariak, bertsogintza...).
- Euskara Taldeekin, euskaltegiekin elkarlanean euskara dakiten helduentzat euskaraz mintzatzeko eta erlazionatzeko guneak sortu (Berbalagun egitasmoa). Eta euskara sustatzeko ekintzak antolatu.
- Familia bidezko transmisioa bultzatu kanpainak eginez ("Niri euskaraz" egitasmoa, umezainen lan poltsa, euskal produktuen katalogoa, eskola agenda, egutegiak).

- Aisialdian euskarari tartea egiten saiatu. (Ludotekak, jolas tailerrak, udaleku irekiak, gazte euskaldunentzako begirale ikastaroak).
- Ahozko hizkera hobetu eta aberastu: Bertsogintza programa eskoletan, Ikastetxeen arteko jardunaldiak hizkera informala lantzeko ikastaroa,...)
- Kultur Etxeekin edo kultur eragileekin batera, Euskal Herriko kultura eta tradizioak ezagutarazteko ekimenak sortzen jarraitu edo daudenak indartu (zinea eskoletako ikasleentzat, antzezlanak,..).
- Merkataritza-ostalaritza esparruari dagokionean, kanpoko zein barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia bermatzeko urratsak ematen hasi. (Merkatari euskaldunak identifikatzea, doako itzulpena eskaini merkatarietara...).
- Teknologia berriak euskaraz: arlo honetan euskaraz dagoenaren berri eman eta erabiltzeko ohitura sustatu.
- Kirolean euskararen presentzia areagotu. (Eskualdeko ikastetxeekin Gazte Triatloia antolatzen da)

Dena dela, koordinazio falta edo interes falta dela eta ekintza horiek askotan paper hutsean geratzen dira. Arazo horri aurre egin nahian, herriko biztanle batek hizkuntza plangintza bat diseinatzea proposatu du, 16-25 urteko gazteen aisialdian euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko. Proposamen horri bide ematearen ardura Kultura zinegotzia eta Udala dira; izan ere, eurak dira proposamen horren onarpenaz arduratzen direnak. Horren ostean, Udala bera izango da indarrean jartzearen arduradun eta horren arrakastaren ebaluazioa egiteaz planaren diseinatzailea arduratuko da. Halaber, hizkuntza plangintza guztietan bezala, alderdi batzuk finkatzea ezinbestekoa bilakatu da; besteak beste, planaren helburuak, hartzaileak, iraupena eta abar.

Helburuei dagokienez, hainbat helburu nagusi ditugu:

- Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea aisialdian
- Gazteen arteko interakzioa euskaraz izatea bultzatu eta bermatu.
- Euskararen garrantziaz jabetzea.

Hori horrela izateko Galdamesko herritar batek euskara normaltzeko plangintza bat garatu du, hainbat jarduerekin. Hizkuntza plangintza hau, Galdamesen dauden 41

gazteekin aplikatuko da. Bi urteko iraupena (2016- 2018) izango du. Aurretik aipatutako helburua betetzeko, Galdamesko herritarra Cooperren hizkuntza plangintzan (Cooper, 1997) oinarritzeaz gain, Eusko Jaurlaritzaren *Euskara Sustatzeko Ekintza Planean* (Eusko Jaurlaritza, 2014) eta Soziolinguistikako eskuliburuan (Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza, 2010) oinarritu da. Gainera, gaztetxoek euskara erabileraren eta ezagutzaren berri izateko V. mapa soziolinguistikora (Eusko Jaurlaritza, 2012) eta VI. Kale neurketara (Soziolinguistika Klusterra, 2012) jo du.

Bestalde, gure gazteen errealitate linguistikoa, zaletasunak, erabilera eta jarrerak aztertzea ezinbestekotzat hartu dugu. Hori guztia inkesta eta behaketa zuzenaren bidez egin da. Horrela, aurretik aipatutako helburua gauzatzeko ekintzak antolatu ditugu.

Hori lortzeko ahalegin handia egin behar dugulakoan gaude. Izan ere, euskararen normalizazioaren alderditik lortu nahi den helburua garrantzitsua da, eta gure egoeran eta testuinguruan helburu handinahikoa da. Nahiz eta euskara hezkuntza hizkuntzatzat izan, ezin dugu euskara gazteen aisialdian harreman hizkuntza izatea bermatu, ezta euren aisialdian presente egotea ere. Hori argi eta garbi ikusi baitugu inkestan eta egindako behaketa zuzenean.

Jakin badakigu, 41 gazteen zaletasunak oso antzekoak direla, baita errealitate linguistikoa ere. Horregatik, euren zaletasunen arabera ekintzak eskaini nahi zaizkie. Euren errealitate linguistikoari begira, herritar gazte gehienek ez daukate euskaraz egiteko aukerarik. Batetik, eremu erdaldunean bizi direlako; eta, bestetik, gurasoak euskaraz ez dakitelako. Horregatik, gazte horiek erakartzeko euren interesekin bat egiten dituzten jarduerak garatu behar dira. Horrela, euren zaletasunaz gozatzeaz gain, euskararekin harreman zuzena ere izango dute. Esan beharra dago, euskarak gazteen aisialdian erabilera normalizatua ez duela. Horrenbestez, Galdamesko herritarrak eta udalak euskararen erabilera aisialdian normalizatzeko planak burutzeko premia ikusten du. Horregatik, aisialdian euskararen erabilera sustatzeko ekintzak egingo dira, euren arteko interakzioa euskaraz izatea bultzatu eta bermatzeaz gain, euskararen garrantziaz ere jabetzeko.

2. Marko teorikoa

Hasieran esan den bezala, lan hau hizkuntza plangintza bat da. Jakina denez, hizkuntza plangintzak xede ugari izan ditzake. Horregatik, ezinezkoa da definizio unibertsalik ematea. 1959an, Haugenek “ hizkuntza erregulazioa” edo “ hizkuntza ingeniari-tza” terminoa literaturan sartu zuen. Berak eman zuen definizioa honako hau zen: ortografia, gramatika eta hiztegi arauak prestatzea komunitateko hiztun eta idazleentzat (Haugen,1959).

Dena den, Cooperrek hamahirugarren definizio bat eman zuen. Gu horretan eta bere eredu- an oinarritu gara gure lan aplikatua egiteko.

Cooperren definizioa aztertuz, berak dio hizkuntza plangintzak beste batzuen hizkuntza portaeran eragin nahi duela, eta aldaketa sozialtzat adierazten du. Horrez gain, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egituran eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira bertan.(Cooper, 1997:45)

Bestaldetik, Cooperren ereduaren arabera, hainbat elementu kontuan hartu behar dira hizkuntza plangintza edo politika bat antolatze-ko orduan:

1. Nork: hizkuntza plangintza nork diseinatzen duen zehaztu beharra dago. Orokorrean, gobernuak edo elkarte- en ekintzak direla uste da; eta, askotan, ez da kontuan hartzen indibiduo- en edo herriaren mugimendua. Gure kasuan, hizkuntza plangintzaren diseinatzailea euskal filologia ikasitako herritarra da. Dena den, udalak ere neurri batean parte hartu du.
2. Zer: helburuaren arabera edo lortu nahi denaren arabera modu batean edo bestean egingo dira plangintzak. Hemen bi mota ezberdintzen dira: batetik, *Corpus planning*; eta, bestetik, *Status planning*. Lehenengoak arau berriak egiten ditu, zaharrak moldatzen ditu, forma alternatiboak bilatzen ditu eta abar. Gure helburua aztertuz, esan daiteke *Status planningaren* barruan egongo litzatekeela. Izan ere, hizkuntzen garrantzia eta hizkuntza gutxituen eskubideen defentsa bezalako ekintzak dira garrantzitsuak hemen.

3. Nori edo norentzat: Cooperrek dio hiztun edo idazle edo hizkuntza erabiltzaile guztiei zuzenduta egon beharko lukeela, nahiz eta batzuetan talde sofistikatuetan bakarrik pentsatu. Aurretik esan bezala, gure plangintza 16-25 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

4. Zelan: plan mota ezberdinek arau eta prozedura ezberdinak behar dituzte. Neupstupnyk hizkuntza plangintza okerrak zuzentzeko tresna bezala ikusi zuen.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2012an eta Eusko Legebiltzarrak 2013an onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren irizpideetan funtsatu gara. Plan horren helburu nagusia, izenak berak esaten duen bezala, euskararen erabilera bultzatzea da. Hori egiteko hiru oinarri hartu behar dira kontuan: batetik, eskubide linguistikoen aitorpena eta babesa; bestetik, euskaldunen dimentsioa; eta, azkenik, euskararen erakarpenean, baita euskarazko kulturarena ere. Horrenbestez, euskararen erabilera sustatzeko hamasei alderditan banatu dituzte ekintzak (Eusko Jaurlaritza, 2014). Horietatik gu bitan oinarritu gara; besteak beste, aisialdia eta kirolan eta kulturagintzan. Geroago, Euskara Sustatzeko Ekintza Planari dagokion atalean sakonduko ditugu alderdi horiek.

Bestalde, gure hizkuntza plangintzaren asmoak definitu ostean, hartzaileen jarrera, interesa, egoera eta beste alderdi asko aztertu behar dira, gure plangintza hartzaileen errealitatearekin bat egiteko. Horrela, harrera hobea izan dezan. Diagnosi hori egiteko bideak ezinbesteko garrantzia dauka. Horregatik, errealitatea alait ondoen aztertzeke ikerketa metodo egokia aurkitzea berebizikoa da.

Bestaldetik, gazteen euskara gaitasunaren eta erabileraren inguruan hainbat eta hainbat azterketa egin diren arren, guk V. Mapa Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2012), VI. Kale neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2012) aztertu ditugu.

V. Mapa soziolinguistikoan, 2011n, jasotako emaitzei dagokienez, esan beharra dago, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gazteen euskara ezagutza maila eta erabilera ez datozela bat; izan ere, gazteen artean ezagutzak gora egin du, baina erabilerak, aldiz, ez. Hala ere, gu Bizkaiko, Enkarterrietako eta Galdamesko datuetan funtsatu gara eta EAEko

datuekin erkatu ditugu. Aipagarria da esatea ezinezkoa egin zaigula Galdamesko datu bat topatzea, hori ez baitago: kale erabilera.

Bizkaiko biztanleen bilakaera euskaldunei dagokienez (Eustat)

Adina	1981	1991	2001	2011
15-19	% 12,1	% 21,5	% 47,5	% 51,3
20-24	% 12,9	% 18,2	% 35,2	% 68,1

Beraz, ikusi daitekeen moduan, euskararen ezagutzaren bilakaerak gora egin du eta adin tarte batetik bestera 17 puntuko aldea nabarmendu beharra dago.

Enkarerrietako datuak topatzeko Soziolinguistika Klusterreko webgunera jo behar izan dugu. Bertan azaltzen da 2011n 15-34 urte bitartekoen %40,6k euskaraz zekiela (Soziolinguistika Klusterra, 2012). Galdamesko datuak ere aztertu ditugu. Horiek jakitea ezinbestekotzat jotzen dugu herriko errealitatea al bait ondoen jakiteko eta gure gazteen hizkuntza ohiturak hobeto ulertzeko. Datuei begira, horiek azaltzen digute Galdamesen %21,38 euskalduna dela. Beraz, Enkarerriak eta Galdames Bizkaiko % horren azpitik daude. Hala ere, Bizkaian eman den joera bera eman da; izan ere, gune soziolinguistikoen bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu nola 1981tik 2011ra Enkarerrietako herri gehienek, Galdames barne, lehen gune soziolinguistikotik (Biztanleriaren % 20 baino gutxiago da euskalduna) bigarren gune soziolinguistikora (Biztanleriaren % 20-50 bitartean da euskalduna) igaro diren. Datuek argi eta garbi erakusten dute Bizkaian goranzko joera eman dela; eta, hori EAE osoko joera izan dela esan daiteke.

Dena dela, kale erabilerarekin ez da gauza bera gertatzen. VI. Kale neurketan (Eustat, 2012) azaltzen da nola Bizkaian gazteen euskararen bilakaerak behera egin duen. 1989. urtetik 2001. urtera arte goranzko joera izan arren, 2011. urtean beherakada egon da, 2001ean euskararen erabilera %10,2koa zelako; eta, 2011n, aldiz, %8,6koa. Enkarerrietan, gazteen kale erabileraren daturik egon ez arren, datu orokorrak baditugu datu horiek erakusten dute 2011n Enkarerrietan kaleko erabilera %0,2koa zela.

Orokorrean euskararen kale erabilerak behera egin du, baina Enkarterrietan joera aurkakoa izan da. Hemen goranzko tendentzia dago.

Bestalde, Bizkaian 15-19 urte bitartekoen ama hizkuntzari buruz ditugun azkeneko datuak (2011) aztertuz, gaztelania nagusi dela ondorioztatu daiteke, % 72,8koen ama hizkuntza baita, eta 20-24 urte bitartekoen artean ehunekoa handiagoa da, %75,3, hain zuzen ere. Euskara lehen hizkuntzat duten gazteen ehunekoa, berriz, %13,2koa (15-19) eta %11,5ekoa (20-24) da; eta, gaztelania eta euskara ama hizkuntzat dutenen ehunekoa hiru puntu eta lau baxuagoa da. Halaber, aipatu beharra dago, EAEn gaztelania eta euskararen artean dagoen tartea handia izan arren, euskara edo euskara eta gaztelania ama hizkuntzat duten gazte ehunekoen joera goranzkoa dela. Enkarterriei dagokienez, ez daukagu adin taldeka banandutako daturik, datu orokorra baizik. Horrek adierazten du %2,5ek duela euskara ama hizkuntzat. Galdamesen gauza bera gertatzen da; hau da, ez daukagula datua adin taldeka bananduta. Dena den, datu orokorra daukagu, eta horrek erakusten du %1,8k duela euskara ama hizkuntzat. Aipagarria da esatea datu hori oso baxua dela bai EAerekin, bai Bizkaiarekin, bai Enkarterriekin erkatuta.

Horren harira, gomendagarria da aipatzea gure gazteek etxean erabiltzen duten hizkuntza zein den. Bizkaian, 2011n 15-19 urte bitarteko gazteen %79,9k eta 20-24 urte bitartekoen %81,5ek gaztelaniaz egiten zuen. Datu horiek, Bizkaiko datu orokorrekin eta EAekoekin alderatuta oso antzekoak direla ikusten dugu. Izan ere, Bizkaian, 2011n, %83,3k gaztelaniaz egiten zuen eta EAEn %77,1ek. Euskararen erabilera, ostera, ehuneko horietatik urrun samar dago, EAEn, %13,4koa delako; Bizkaian, %8,8koa; eta, Bizkaiko 15-19 urteko gazteen erabilera % 9koa eta 20-24ena %8koa. Aurrekoetan bezala, hemen ere, Enkarterrietako datu orokorra baino ez daukagu. Datu horrek adierazten du 2011n %92,2k gaztelaniaz egiten zuela eta %2,3k baino ez zuela euskaraz egiten. Adierazle honetan Galdamesko datu orokorra ere badaukagu, datu horrek adierazten du %92,6k gaztelaniaz mintzatzen zela eta %3k, aldiz, euskaraz. Datu horri helduta esan dezakegu, bai Enkarterrietako, bai Galdamesko datuak oso antzekoak direla.

Hori dela eta, hasieran esan bezala, gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilerak ez datoz bat. 1981etik 2011ra gazte euskaldunen kopurua nabarmen igo da. Hala ere, kaleko

erabilera 2001etik 2011ra jaitsi da. Halaber, Bizkaian, Enkarterrietan eta Galdamesen gazteen ama hizkuntza gaztelania da nagusiki. Dena dela, 1981eko datuekin erkatuz, esan daiteke gero eta gazte gehiagok dutela euskara edo gaztelania eta euskara ama hizkuntzatzat. Azkenik, etxeko erabileran, argi eta garbi ikusi dugu gaztelaniaren nagusitasuna agerikoa dela. V. Mapa Soziolinguistikoarekin (Eusko Jaurlaritza 2012). Amaitzeko, komeni da esatea, immigrazioa gazte euskaldunen ehunekoetan faktore determinantea izan dela; azkenaldian, gure lurraldera etorri diren atzerritarrak gazteak izan direlako.

3. Metodologia

A) Diagnostika egiteko metodologia

Aurretik aipatutako helburua gauzatzeko datu batzuk aztertzea behar beharrezkoak izan dira; besteak beste, herriko gazteen errealitate linguistikoa, jarrera, erabilera eta zaletasunak. Hau da, gazteen diagnostika egitea behar beharrezkoa izan dugu. Datu bilketa hori egiteko, bi metodologia erabili dira: inkesta eta behaketa zuzena.

Zuzenagoa zen eztabaida talde bat osatzea, haien iritzia entzuteko; izan ere, talde dinamikak bizipen eta iritzi ezberdinak sorrarazten ditu. Baina gazteen ordutegia dela eta oso zaila ikusi dugu topaketa bat antolatzea. Hortaz, lehenbizi, inkesta bat prestatu dugu.

Inkesta aurrez aurrekoa izan da eta hamahiru galdera itxiz osotutakoa; hau da, inkestatuari zenbait aukeren artean aukeratzea esan zaio. Horien bitartez gazteen errealitate linguistikoa, zaletasunak, jarrera eta etxeko eta lagunekin zein den erabiltzen duten hizkuntza aztertu nahi izan da modu kuantitatiboaz. Izan ere, metodo hau oso egokia da, esaterako, gizarte jarrerak aztertzeke, teknika fidagarria delako eta erraz zenbatu baitaiteke. Aipatu beharra dago, inkesta egin ostean, jasotako erantzunen kontaketa eta erregistroa egin dela; ondoren, analisia egiteko (Hernández, 2010:298).

Bestalde, behaketa zuzena modu sistematiko eta kontrolatuan egin da, gazteek euren artean zein hizkuntzetan egiten duten aztertzeke, hots, euren portaera aztertzeke. Behaketa

zuzena, herriko tabernetan eta kalean egin da. Eta bertan entzundakoa eta sumatutakoa jaso da, errealitatea den bezala ikertzeko. (Hernández, 2010: 310)

B) Plana egiteko metodologia

Lehen esan bezala, Udalean ez da Hizkuntza eta Trataera Bateraturako Batzorderik. Orduan hizkuntza plangintza graduondoa egiten ari den herritar bat izango da hizkuntza plana garatzearen arduraduna. Hala ere, Kultura zinegotziaren eta Alkatearen babesak dauka. Beraz, horien guztien ardura izango da gazteei plana azaltzea eta martxan jartzea. Aipatu beharra dago, Udal ordezkariak egoteaz gain, herritarrek parte hartu ahal izango dute; beraz, herritarrek ere euren ekarpenak egin ahal izango dituzte. Gainera, Udala eta planaren diseinatzailea hiru hilabetero batzartuko dira. Bertan, planaren egoera aztertzeaz gain, unean-uneko aldaketak egingo dituzte, eta plangintzaldian sor daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko mekanismoak garatuko dituzte.

4. Diagnostika

1. Galdamesko 16-25 urte bitartekoaren egoera soziolinguistikoa

Atal honetan, inkestan jasotako emaitzak azalduko dira, baita behaketa zuzenarenak ere. Bertan, gazteen egoera soziolinguistikoa azaltzeaz gain, euren jarreraren berri eta aisialdian egiten dutenaren berri izango dugu. Horrez gain, euren harremanetan eta aisialdian zein hizkuntza darabilten ageriko da. Era berean, Galdamesko herritarrak eta kultura zinegotziak bi astetan egindako behaketa zuzenaren emaitza adieraziko da. Dena den, lehendabizi, Galdamesko egoera soziolinguistikoa jasotzea gomendagarria iruditu zaigu; geroago, gure gazteen egoerarekin aldaratzeko.

2. Galdamesko biztanleriaren bilakaera adin taldeka

Taula honek Galdamesko biztanleriaren bilakaera adierazten digu 2007. urtetik 2015era arte. Informazio hori islatzea garrantzitsutzat jo dugu; izan ere, adin talde bakoitzeko garapen demografikoa ondorio batzuetara heltzeko lagungarria da.

Adina			
	2007	2011	2015
≥65	%23,37	%23	%24,11
20-64	%64,93	%64,27	%62,11
0-19	%11,68	%12,69	%13,76
Guztira	830	851	821

ITURRIA: Eustat eta Galdamesko Udaletik hartuta

Datuak aztertuz, ikusten dugu nola 20-64 urteko adin tartean, biztanle kopuruari dagokionez, beherakada handia egon den 2011tik 2015. urtera arte eta adin tarte hori izan da beherakada eman den adin tarte bakarra. Datu hori ikusita ondorio batera heldu gara, herriak eskaintzen dituen zerbitzu eskasak ez ezik, adin horretara bideratuta dauden aisialdi ekimenak hutsalak direla. Beraz, horiek izan daitezke beherakada horren arrazoietakoz batzuk, beste faktore batzuen artean, noski.

Adina	2016
16-25	40

Taula horretan, aldiz, gure plangintza bideratuta dagoen adin taldeko biztanleria azaltzen da. Datu hori jakitea beharrezkoa dugu, gure plangintza nori bideratuko den jakiteko. Datuak azaltzen du adin tarte horretan, 40 gazte ditugula.

3. Galdamesko biztanleen lehen hizkuntza (2011)

Taula honek Galdamesko biztanleen ama hizkuntza adierazten du. Datu hauen ezagutza garrantzitsutzat jo dugu herriko errealitatea ezagutzeko.

	Euskara		Gaztelania		Biak		Beste bat		Guztira
Galdames	16	%1,8	799	%94,1	26	%3	10	%1,1	851

Iturria: Galdamesko Udala (2011)

Taulan ikusi daitekeen bezala, Galdamesen, 2011n, 851 biztanle zeuden. Horien ama hizkuntza gaztelania zen batez ere, %94,1 zelako. Euskara ehuneko horretatik oso urrun geratzen zela aipatu beharra dago, euskara ama hizkuntzatzat zutenen ehunekoa %1,8 zelako. Oso ehuneko baxua dela aipatu beharra dago. Horrez gain, bai euskara, bai gaztelania ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoa %3 zen eta beste hizkuntza bat zutenena %1,1.

Bestalde, ama hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, 2001-2011 urteren artean zein izan den jakitea garrantzitsutzat jotzen dugu, tendentzia zein den jakiteko.

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
2001	%1,12	%2,12	%96,4	%0,25
2006	%1,44	%1,68	%95,79	%1,08
2011	%1,88	%3	%93,88	%1,17

Iturria: Eustat

Taula horretan ama hizkuntzaren bilakaera azaltzen da, 2001etik 2011ra arte. Taulan, ikusten da nola urteak pasa ahala, gero eta herritar gehiagok duela euskara ama hizkuntzatzat. Gauza bera pasatzen da euskara eta gaztelaniarekin, hau da, gero eta biztanle gehiagok ditu bi hizkuntza horiek ama hizkuntza bezala. Gaztelaniak, berriz, beherakada izan du; izan ere, 2001ean biztanleen %96,4k zuen ama hizkuntzatzat eta 2011n %93,8k. Aipagarria ere bada esatea beste hizkuntza bat ama hizkuntzatzat dutenen ehunekoak gora egin duela. Horrela, datu horiek begi onez ikusten ditugu, azken batean, nahiz eta igoera urria izan igoera eman da.


INKESTAREN EMAITZAK

Ondoren azalduko diren inkestaren emaitzak gazteen erantzunak dira. Halere, aipatu beharra dago ezinezkoa egin zaigula gazte guztiei inkesta egitea, hainbaten posta elektronikoa falta izan zaigulako eta beste batzuek ez dutelako erantzun. Beraz, 24 gazteei egindako inkesta da. Dena dela, erantzunak ikusita gazte batetik bestera alde handirik ez dagoela ikusi dugu; beraz, beste gazte horien erantzunak oso antzekoak izango zirelakoan gaude.

1. Gazteen adina

Esan bezala, inkesta 24 gaztek egin zuten. Egindakoen adina jakitea beharrezkotzat jo dugu benetako egoera zein den jakiteko. Horrela, haien adinera hobeto egokitzen diren jarduerak egin ahal izango dira.

1. *Gazteen adina*




Grafikoan ikusten den moduan, inkesta erantzun duten gehienek 21 urte dituzte, hau da, %31k; ondoren, 20 %17arekin. Beraz, erantzun duten gehienak 23 urte baino gutxiago dutenak dira.

2. **Gazteen sexua**

Hizkuntza plangintza bat diseinatu aurretik, norentzat zuzenduta dagoen jakin behar dugu. Horretarako, erantzun dutenen artean zenbat neska eta zenbat mutil dauden jakin behar dugu.

2. *Gazteen sexua*




Grafikoan ikusi dezakegu nola erantzun duten gazte gehienak mutilak diren, %61, hain zuzen ere. Neskek, aldiz, erantzunen %39 osatzen dute.

3. Hezkuntza eredua

Gazteek zein hezkuntza eredutan ikasi duten jakitea oso garrantzitsua da. Horrela, euren euskara maila gutxi gora behera zein den jakin dezakegu.

3. Hezkuntza eredua




Grafikoan ikusi daiteke nola gazte gehienek D ereduan ikasi duten, %79k, hain zuzen ere. Ondoren B eredua daukagu alde handira, % 17k baino ez duelako hezkuntza eredu horretan ikasi. Azkenik, A eredua daukagu; horretan, %4k baino ez du ikasi. Hori dela eta, datu horiek azaltzen digute adin tarte horretako gazte gehienek euskara ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna dutela.

4. Ama hizkuntza

Gure gazteen eta haien gurasoen ama hizkuntza zein den jakin beharra dago. Datu honek horien guztien informazio linguistikoa emateaz gain, oso datu aproposa da euren hizkuntza ohituren zergatia azaltzeko.

4. Ama hizkuntza




Grafikoko datuek argi eta garbi adierazten digute bi belaunaldietan gaztelania dela nagusi. Ehuneko handiagoa ematen da gurasoengan, baina aldea ez da handia; izan ere, gazteen %91,3k dio gaztelania dela euren ama hizkuntza eta gurasoena %95 inguruan dago. Beraz, esan bezala, bi belaunaldien arteko ezberdintasuna oso txikia da. Aipagarria da esatea, gazteen %8,6k aitortu duela gaztelania zein euskara duela ama hizkuntzatzat. Gurasoen artean, bi hizkuntza horiek aiten %4,3k baino ez dauka. Amen kasuan, %100ak dauka gaztelania ama hizkuntzatzat. Datu horiek herriaren euskara transmisioaren egoera kaxkarra azaltzen dute.

5. Familiarteko eta lagunarteko hizkuntzaren erabilera

Gure gazteek familiartean eta lagunartean erabiltzen duten hizkuntza zein den jakiteari garrantzia handia ematen diogu. Izan ere, datu honen arabera, helburu jakinak zehaztu daitezke, harreman hizkuntza hori bere horretan mantentzeko edo hori aldatzeko unean- uneko neurriak hartuz.

5. Familiarteko eta lagunarteko hizkuntzaren erabilera




Datuek erakusten dute bai amarekin, bai aitarekin, bai neba-arrebekin, bai lagunekin beti gaztelaniaz egiten dutela. Dena den, lagunen atalean ikusi dezakegu nola gehienbat euskaraz edo beti euskaraz aukerak beste harreman taldeek baino ehuneko altuagoa duten. Gerta daiteke, unibertsitateko edo lantokiko lagunek horretan eragina izatea. Bestalde, komenigarria da azaltzea nola neba-arrebekin ere gaztelania dela harreman hizkuntza, eta inork ere ez du aitortu euskaraz egiten duenik. Gurasoei erreparatuz, esan beharra dago, amarekin egiten dutela gehiago euskaraz.

6. Eremu formalean euskararen erabilera

Eremu formalean, hau da, lantokian edo eskola zein unibertsitatean, gure gazteen hizkuntza ohitura jakin beharra daukagu. Modu horretan, aurreko datuekin alderik dagoen edo ez jakingo dugu, eta egoera horri aurre egiteko edo bere horretan mantentzeko helburuak eta mekanismoak garatuko ditugu.

6. Eremu formalean euskararen erabilera




Aurreko datuetan bezala, eremu formalean ere euskararen erabilera oso eskasa da. %4k dio euskaraz beti egiten duela eta %13k batzuetan. Bestalde, %83k baieztatzen du ez duela euskaraz inoiz ere ez egiten.

7. Herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera

Herriko denda zein tabernetan erabiltzen duten hizkuntza lagungarria izango da gero haien artean darabilten hizkuntza ulertzeko. Aisialdiko giro horren datuak ezinbestekoak izango ditugu arlo horretan hartu beharreko neurriak adostu eta zehazteko.

7. Herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera




Grafiko horrek argi eta garbi adierazten digu beti gaztelaniaz egiten dutenak %91 direla eta %9k gehienbat gaztelaniaz egiten duela. Hortaz, aisialdi mota horretan euskararen presentzia ez dago inon.

8. Aisialdiko ekintzak

Hasieran esan bezala, gure helburu nagusia da herriko gazteen aisialdian euskararen erabilera eta presentzia areagotzea. Horretarako, gure gazteek aisialdian zer egiten duten jakin behar dugu, euren interesekin bat egiten dituzten ekintzak garatzeko.

8. Aisialdiko ekintzak





Grafikoan ikusi daitekeen bezala, aisialdian gazte gehienek ingelesa edo beste hizkuntza bat ikasten dute, %34k, hain justu ere. Ondoren, futbolak dauka gazteen artean indar gehien %27k praktikatzen baitu. Horren ostean, puntu bat gutxiagorekin “beste bat” aukera daukagu. Jakin badakigu aukera hori markatu duten hainbatek eskalada egiten duela. Azkenik, saskibaloia aukera markatu du %13k. Beraz, hizkuntzak ikasteari eskaintzen diote, batez ere, gure gazteek haien denbora librean.

9. Aisialdiko hizkuntza

Aisialdia zentzu zabalean ulertzen dugu, ez bakarrik kirolarekin, edo eskolaz kanpoko ekintzekin. Horregatik, sare sozialetan, musika entzutean, telebista edo filmak ikustean, egunkariak eta abarrak irakurtzean eta aurretik aipatutako aisialdi horretan erabiltzen duten hizkuntza jakin nahi dugu. Galdeketa horretan jasotako emaitzen arabera, helburu jakinagoak garatuko ditugu, baita horiek lortzeko mekanismoak ere.

9. Aisialdiko hizkuntza




Bi grafiko horiek argi eta garbi adierazten dute gaztelania nagusi dela aisialdiko alderdi guztietan, batez ere, aisialdian, sare sozialen erabileran, irakurketan eta telebistan.

Musikari dagokionez, hizkuntzen arteko ezberdintasuna ez da hain handia; izan ere, euskara eta gehienbat euskara aukerak ehuneko adierazgarria izan dute.

10. Aisialdiko jarduerak euskaraz egiteko prestutasuna

Hizkuntza plangintza bat ezarri nahi denean, ezinbestekoa da jakitea plangintza horren hartzaileak horren aldeko ekintzak egiteko prest dauden edo ez. Horregatik, gure gazteek euskaraz diren ekintzekiko ze jarrera duten aztertu nahi dugu. Horrela, motibazioa lantzea beharrezkoa den edo ez jakingo dugu; eta, horretarako, beharrezkoak diren tresnak abian jarriko ditugu.

10. Aisialdiko jarduerak euskaraz egiteko prestutasuna




Lehen esan bezala, grafiko honek ageri du ea euskaraz diren ekintzetara izena emango luketen. Hori aztertu ondoren, euren erantzunak oso positiboak direlakoan gaude, ikusi daitekeen moduan, bai eta beharbada bai aukeren gehitzea %59 delako. Bestalde, %27k zalantzak ditu, eta %14k argi dauka ez lukeela parterik hartuko.

11. Euskara ikasten jarraitzeko jarrera

Gazteek euskara ikasteko asmoa duten edo ez jakitea funtsezkoa da; ez hori bakarrik, baita asmo horien zergatiak ere. Modu horretan, jakingo dugu eremu horretan helbururen bat finkatu behar den, eta hartu beharreko neurriak zeintzuk izan behar diren.

11. Euskara ikasten jarraitzeko jarrera



Grafiko horretan gazteen %100ek intentzioa du euskara ikasteko. Horietatik %30ak esan du ikasiko lukeela edo ikasten jarraituko lukeela Euskal Herriko hizkuntza eta kultura mantentzeko. Beraz, jarrera identitario baten aurrean aurkitzen gara; hau da, jarrera horrek lotura du euskararekiko atxikimenduarekin, edota, hiztun-komunitatearekiko edo talde horren kultura- adierazpenarekiko identifikazio-mailarekin (Martí eta beste, 2005: 298).

Edozelan ere, %17k lan hobea lortzeko ikasiko luke euskara. Kasu honetan, jarrera instrumental edo pragmatikoaren aurrean topatzen gara. Beste era batera esanda, hizkuntza onura ekonomikoarekin edo gizarte-mailan promozio aukerak handitzearekin lotzen dute gure ikasleek (Baker, 1932:32). Azkenik, %13k dio ikasiko lukeela Euskal Herriko hizkuntza delako, eta %9k aberastasun pertsonalagatik.

12. Euskara familian transmititzeko jarrera

Gazteek etorkizunean euren seme-alabei etxean euskara transmititzearen alde dauden jakiteak adierazten digu zein den haien etorkizuneko asmoa. Jarrera hori jakinda, alor horretan helburu zehatzak finkatzea beharrezkoa den edo ez zehaztuko dugu.

12. Euskara familian transmititzeko jarrera



Grafiko horretan azaltzen da gazteen %75ak euskaraz beti egingo liekeela seme-alabei, %25ak, aldiz, dio bietan, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Hortaz, emaitzak oso positibotzat jotzen ditugu; izan ere, inork ere ez du euskara etxean transmititzearen aurkako jarrera izan.

BEHAKETA ZUZENAREN EMAITZAK

Behaketa zuzenaren metodoarekin, euren erabilera azertu dugu, herrian. Horretarako, bi astez egon gara gure gazteen erabilera aztertzen. Behaketa hori egitearen arduradunak ni eta kultura zinegotzia izan gara. Bi aste horietan, tabernetan gazteek euren artean zein hizkuntzatan egiten duten azertu dugu. Behaketa hori ahalik eta zorrotzen izateko, orri batean apuntatu dugu taberna bakoitzean jasotako informazioa. Horrez gain, herriko plazan kultura zinegotzia adi egon da gazteek euren artean eta gainerako biztanleekin zein hizkuntzetan egiten duten aztertzen.. Prozesu horren guztiaren emaitza nagusia honako hau da: euren artean gaztelaniaz baino ez dute egiten, bai tabernetan, bai herriko plazan. Euskaraz amaierako agurrak baino ez dituztela egiten jaso da; esate baterako, “agur, ondo pasa”...; baita eskerrak ere emateko “eskerrik asko” esaten baitute.

ONDORIOAK

Jarraian, taula batean irudikatuko ditugu ahuleziak eta indarguneak. Taula horrek, eskumako taulak batez ere, ezin hobeto islatzen du diagnosian ateratako ondorioak. Besteak, aldiz, herriko egungo egoeraren isla da.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none">• Aisialdi aukera gutxi• Arnasguneen gabezia• Herriaren euskara ezagutza eta erabilera• Udalean euskararekiko kontzientziazio falta• Aisialdia gaztelaniaz	<ul style="list-style-type: none">• Gazteak euskaldunak• Parte hartzeko asmoa• Euskara ikasteko asmoa• Euskal musikarekiko interesaren bat• Euskara transmititzeko asmoa

Hori dela eta, herrian gazteak euskaldunak dira, batez ere. Horrez gain, euskarazko ekintzetan parte hartzeko asmoa adierazi dute gehienek. Bestalde, gehienek aisialdia gaztelaniaz egiten dute, baina musikaren alorrean euskal musikari buruzko interesa daukatela adierazi dute. Azkenik, azpimarratu beharra dago euskara transmititzeko intentzioa adierazi duela ehuneko handi batek.

5.Hizkuntza plana

Lehenik eta behin, diagnosian ateratako ondorioak hainbat helburu zehatz lantzeko premia dagoela azaldu digu. Horregatik, hizkuntza planaren jarduerekin hasi aurretik,

helburu zehatzak azalduko ditugu; eta, horiek Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) (Eusko Jaurlaritza, 2014) uztartuko ditugu.

5.1 Helburu zehatzak eta ESEP

Aurretik esan bezala, helburu zehatzak ezartzeko beharra antzeman dugu. Izan ere, inkestan eta behaketa zuzenean jasotako emaitzek adierazi dute hainbat ohitura, jarrera eta abar aldatu behar direla, euskararen mesederako. Horrenbestez, ikasleen egoera horri buelta emateko, hainbat helburu zehatz planteatu ditugu:

- Euren arteko harreman hizkuntza aldatzea eta euskaraz bat-batekotasuna lantzea.
- Kultura kontsumoa handitzea
- Euren aisialdiarekin lotuta dauden ekintzak garatzea
- Sare sozialetan euskara erabiltzea

Helburu horiek eta hasiera-hasieratik aipatutako helburu nagusiek lotura hertsi-hertsia dute 2012ko uztailearen 18an, Lehendakaritza egindako bilera batean onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin (ESEP) (Eusko Jaurlaritza 2014). Aipatu beharra dago, horren helburu nagusia euskararen erabilera areagotzea zela. Urte berean, uztailearen 24an, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu eta Eusko Legebiltzarrerera bidali zuen aurrera eramateko.

Lehen adierazi den bezala, Euskara Sustatzeko Ekintza Plan horren barruan hainbat atal dauden arren, gu bitan oinarritu gara: aisia eta kirolan eta kulturgintzan, hurrenez hurren. Horrez gain, eremu horietan zehaztu ditugun helburuak Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) dioenarekin lotu ditugu.

Kulturgintzari dagokionez:

1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (Eusko Jaurlaritza, 2014)

1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea

1.4. Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea

Jakin badakigu, Galdames herri erdalduna dela eta inguru erdaldun batean kokatuta dagoela. Analisisian ikusi dugu gazte gehienek D ereduan ikasi arren, euskaraz ez dutela irakurtzen ezta telebista ikusi ere egin. Halaber, adin nagusien artean A eta B ereduak indar handiago dute. Horregatik, horiek euskal kulturarekiko duten atxikimendua are eskasagoa da. Gainera, egun, horietako asko elebidun pasiboak izango dira. Hortaz, hainbat ekimen garatuko dira egoera horri buelta emateko eta euskal kulturara erakartzeko; esate baterako, erromeriak eta bertso afariak.

2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea (Eusko Jaurlaritza, 2014).

2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak,...) abian jartzea edo indartzea

Normalean, sariak edo lehiaketak harrera ona daukate gazteen artean. Horrela, baliabide horiek erabili nahi ditugu, gure gazteek euskaraz sortzeko. Horretarako, bidaia lehiaketa eta instagram lehiaketa antolatuko dugu

4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea

Gaur egun, komunikazioa berebiziko garrantzia dauka eta gazteek sare sozialak eta internet eskura daukate. Horregatik, euskara taldeko sare soziala aprobetxatu behar da; hots, Bloga Bizkaian dauden euskarazko ekimenen berri emateko, baita produktuena ere.

Aisiari begira:

